Doako alea

Susanna Martinek Oxfam Intermonentzat egina

SAMALDAN

NIKARAGUAKO ETXEKO ETA ZAINKETAKO EMAKUME LANGILEAK BIZKAIAN

OXFAM

SAMALDAN

NIKARAGUAKO ETXEKO ETA ZAINKETAKO EMAKUME LANGILEAK BIZKAIAN

Susanna Martinek Oxfam Intermonentzat egina

Irudiak eta gidoia: Susanna Martín Segarra
Itzulpena: Gotzone Olarra
ISBN:978-84-8452-747-3
Bilbo, 2020ko martxoan

Argitalpena Creative Commons baimen pean dago: askatasunez erabil daiteke kanpaina eta intzidentzia politikorako, baita hezkuntza eta ikerketa arloetan ere, beti ere iturria eta egilea osorik aipatuz. Oxfam Intermonek edozein erabileraren berri emateko eskatzen du eragina neurtu ahal izateko. Testua eta irudiak beste era batera erabiltzeko edota itzulpenak zein moldaketak egiteko beharrezkoa da aurretik baimena eskatzea. Harremanetan jarri helbide honen bidez: msambade@oxfamintermon.org

Ekoizpena:

OXFAM Intermón

Laguntzailea:

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

creative commons

Reconocimiento–NoComercial–SinObraDerivada 4.0 Internacional (CC BY-NC-ND 4.0)
Licencia completa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

Komikirako SARRERA

«Una golondrina no hace verano.»

MAIZ TOPATZEN DUT kalean eta betiere besarkatzeko grina daragit hain dago beteta energia positiboz, langile nekaezina, borroka guztietan parte hartzaile. Hura da, etxeko eta zaintzako emakume langileen bidezko aldarrikapenean laguntzeko bidean ezagutu ditugun asko izan litezke.

Etxeko eta zaintzako lana ez zait arrotz; gure familian egin izan da -ordaindua, esan nahi dut; ordaindu gabea, noski – belaunaldi ezberdinetan. Baten bat haur zaintzaile izan zen, beste bat lisatzaile, garbitzaile beste bat, baten batek hori dena egiten zuen egia delako umea zaintzeko enplegatzen zaituztela eta, arin baten, lisatzen jarriko zaituztela, eta barrura, komuna garbitzen, aspiragailua pasatzen, dena barrura, eta garbiketa berezirik badago, eta larunbatean, etxean egonik ere, behar izaten zaituzte delegatzeko ohitura hartuz gero, oinarrizkoena zaintzekoa ere galtzen duelako inork, gehien axola dizuna: zerroren familia, ama, aita, seme-alabak..

Komiki hau etxeko eta zainketako emakume langileen testigantzak ditu iturburu, urrutitik etorritakoak, beste herri batetik, Atlantiko ozeanoaren beste bazterretik. Hauek, lehen aipatutako besteen modura, bizimodua irabaztera etorri ziren bestelako aukerarik izan ez zutenean, lanera, bizitzeko diruak irabaztera, beren familiei jatekoa, eskola, osasuna emateko. Ez dira ezertan ezberdin, beste herrialde batetik datozela salbu; hori da ezberdintzen dituena.

Samaldan etorri ziren – haien beraien hitzetan- aireportu beretik abiatuta, elkarrekin egin zuten hegan eta lurra hartzean, baziren lagun non habia egin bilatzeko lanean, jateko han ta hemen mokokatzen, bertoko hegaztiekin lehian, harrapakariekin topatzeko arriskuan, ezkutukoekin, aspaldi natural izateari utzi zion inguruan, espeziek migratzen dutela eta migratzean bizitza zikloa sustatzen dutela ahaztu daukana.

Hark dio abegitsu garela; ez nago horren ziur. Arrotzekin ez gara fida, are gehiago hazpegia ezberdina izanik, kolorea, erlijioa, ohiturak; gure paretik kentzen ditugu, baztertu, mesprezatu, pertsonenak ez diren izenak jartzen dizkiegu: beltzak, zapidunak, hegoamerikarrak; historia gaiztoak asmatzen ditugu eta mitoak zabaltzen: alfabetatugabeak direla, ez dakitela ezer egiten, berbetan egin ere ez dakitela.

Aitzitik, beharrezkoak dira. Behar ditugu.

Badelako inoiz egin nahi izan ez dituena hain latzak diren laboreak: garbitu, segituan zikintzeko; janaria prestatu eta gustatzen ez zaiela entzun, zorua garbitu eta zapaltzeko, aitonari ipurdia garbitu eta aldarriak entzun, umeen kasketaldiak eraman.

Eta bada inoiz horrelakorik pentsatu ez zuena baina, gauzak aldatu zirenez eta soldata irabaztera atera zenez, ezin izan zen etxeaz eta familiaz lehengo moduan arduratu eta beste irtenbiderik ezean – beharbada gatazka eragingo zuelako- zerbitzua enplegatzea erabaki zuen eta zerbitzua merkeago da, migranteak betetzen badu, (ia) denetara prest dagoena, batez ere paperik ez badu.

Ia denetara esan dut; dagoeneko nekatuta daudelako horrenbeste neurrigabekeriaz eta aspaldi sortuta dira batzen dituzten erakundeak non elkar zaindu, lagundu eta indartzen diren. Eta zenbat eta indartsuago, orduan eta boteretsuago eta jada ez diote ezeri beldur, lehen, heldu zirenean, ez zekiten, baina orain badakitelako Eskubide – letra larriz- jabe direla, giza eta lan eskubideak; manifestapenak antolatzen dituzte, jakinarazpenak zabaltzen, gobernariekin biltzen dira eta euren egoera azaltzen dute argi eta garbi, erreklamatzen, negoziatzen. Errespetatu beharreko bihurtu dira.

Komikia ***Bizitza Zaintzen. Bizkaian eta Gipuzkoan etxeko lanen eta zainketen sektorean diharduten edo inoiz jardun duten emakume nikaraguarren kontakizunak*** ikerketa osatzera dator. 30 emakumek, langile eta jakintsuak batuta, testigantza eman zuten bizitza-historien argazki bilduma osatzeko: abiatzea, etorrera, hemen daroaten bizimodua, familiekin urrutitiko lotura, itzulera edo itzuli ezina.

Saldaman, irudidun obra honetan komiki binetetara egin dugu itzulpena ulergarriago gerta dadin. Baian hau ez da ipuina. Hau egi hutsa da. Etxeko eta zainketako emakume langileen eguneroko bizitzaren irudia da. Ez zaituela engainura eraman artearen laketasunak. Eskerrik asko Susanna Martini mandatua onartzeagatik eta protagonistek merezi duten arreta handiz egin duelako. Eskerrik asko Ana Mª Palaciosi aipatu ikerketaren emaitzak ekartzeagatik eta ikerketa bera, baita Nikaraguako ikertzaile taldeak ere, elkarrizketatutako emakume bakoitzari arreta osoa jarrita egin zelako.

Eskerrik asko, bereziki, testigantza eman zuten langileei eta nahi bai baina eman ezin izan zutenei. Eskerrik asko garen menderako desegokia den egoeran lan egiten duten emakumeei, astia dutenean borrokan eta borrokan dabiltzanak beste langile guztiek badauzkaten eskubideen alde. Obra hau zuen lana aitortzeko lagungarri izan nahi du, zainketa lana, ezinbestekoa.

Gotzone Olarra, Oxfam Intermon Bilbon

1 AZALA

BI ORDU DAUKAT, ANDREAK ESAN ZIDAN.
BILBO, DUELA HAMAR URTEKO UDABERRIA.
MASAYA LLANO GRANDE
LLANO GRANDE MASAYA
BIGUN, BIGUN, LABEKOAK TA OILASKO PASTELAAAA!
PASTELA, ANDRE.
KENDU PARETIK, NEU NAGO JARRITA, BESTELA POLIZIARI DEITUKO DIOT.

ZE BAKARRIK NAGOEN...
BAINA SENDO IZAN BEHAR DUT, ALABENGATIK.
BARKATU, JESAR NAITEKE?
JAKINA, LEKU PUBLIKOA DA ETA NAHI DUZUN TOKIAN JESAR ZAITEZKE.
ESKERRIK ASKO, EZ NEKIEN... GAUZA BAT PASA BERRI ZAIT...
AIENE! BAINA ZE ZAKAR!
ESANGO DIZUT GURELAKO EMAKUMEEN ELKARTEA DAGOELA JOAN EGIN BEHARKO ZINATEKE.
PENTSATUKO DUT.
MARTA ELISA DUT IZENA, ¿NONGOA ZARA?
NEUK BERTA, URTE ASKOTARAKO, EKUADORREKOA NAIZ.
AIENE! NAGUSIAREN ETXERA JOAN BEHAR DUT ETA.

2 ATALA

NESKA, DOI-DOI HELDU ZARA GAUR.
SENTITZEN DUT, ANDREA.
ARRATSALDEAN, ASTIRIK BADUZU, ZIUR BAIETZ, ZOAZ FRUTA APUR BATEN BILA HAU HONDATUTA DAGO ETA.
NAHI BADUZU, ZEUK JAN HAU.
KANK
KONK
BAI, ANDREA.
KANK
KANK
KONK
OSO BAKARRIK NABIL, NIRE FAMILIA, NIRE ALABAK NIKARAGUAN GERATU ZIREN.
AIENE, NIRE ELKARTEA ETORRI BEHAR DUZU DENAK GARA EMAKUME MIGRANTEAK ETA GEHIENEK ETXEETAN EGITEN DUGU LAN.
ZATOZ EMAKUME OSO LAGUNDUTA ETA GUSTORA EGONGO ZARA... ELAIAK DA GURE IZENA, GOLONDRINAS ERDERAZ.

GAU HORRETAN BERTAN.
ETA NOLA IBILI ZINETEN?
ONDO. BEGIRA, DIEGUITOK AGURTA NAHI ZAITU.
ZATOZ AMAREKIN, MAITIA, AGURTU AMAMA.
AMAMATXO, ZENBAT KILOMETRORA DAGO BILBO MASAYATIK?
ETORRIKO ZARA IGANDEAN NI BEISBOLEAN IKUSTERA?
ETA ZU, NOLA ZAUDE, AMA?
ONDO, ONDO, ALABATXO... OSO LANPETUTA JAINKOARI ESKERRAK ETA ETXE ON EAN. IKUSI DUZU BIDAKETA EGIN NIZUELA.
BAI, DIRUAK ONDO HELDU ZITZAIZKIGUN ETA ZORRA KITATZEKO JARRI NITUEN.
HURRENGO EGUNEAN...
EZ IKUTU!
EZ NAUZU GUSTATZEN.
ZIUR ULERTU ERE EZ DIDAZULA EGITEN HITZ EGITEN DIZUDANEAN.
NIK LEHENGUSINA DAUKAT BARTZELONAN ETA JOATEKO ESATEN DIT HAN HOBETO IRABAZTEN DELA.
BERE FAMILIAK ETXETXOA EGIN AHAL IZAN ZUEN JINOTEPEN.
NI DATORREN URTEAN JOANGO NAIZ, SOSAK ESKATUKO DITUT ABIOI-TXARTELERAKO.
PENTSA ZURE ALABEN UNIBERTSITATEA ORDAINDU AHAL IZANGO DUZULA, MARTA ELISA. ETA ZEU, LAGUNTZEKO SENARRIK GABE, EZIN ZARA EGON BETI KALEAN PASTELAK SALTZEN.


EGUN BATZUK GEROAGO, IGANDEAN.
ONGI ETORRI ELAIAKERA!

GEU ERE NIKARAGUARRAK GARA, ESTELIKOAK.
NIRE SENARRAK TXARTO TRATAZEN NINDUEN ETA AIZTAREKIN ETORRI NINTZEN.
FAMILIA OSO ADEITSUAREN ETXEAN NAGO. ORAIN ONDO ORDAINTZEN DIDATE BAINA PROTESTA EGIN NUELAKO.

NIRI, BERRIZ, PENA HANDIA EMAN ZIDAN BIKOTEA ETA ALABATXOA UTZI BEHARRAK.
ETA ESKERRAK AITAREKIN NAGOEN, BAINA OSO FALTAN DUT JUAN. OSO BAKARRIK SENTITZEN ZARA FAMILIARENGANDIK URRUN.

AIENE! BOST HILABETE BAINO EZ DARAMAT ETA EGUN BATZUETAN EZIN DIOT EUTSI HERRIMINARI ETA FAMILIA ABANDONATZEAK ERAGITEN DIDAN KULPARI.

3 ATALA


HILABETE BATZUK GEROAGO.
IGNACIO JAUNA, GABONAK DIRA!
GAUR FAMILIA OSOA DATOR OSPATZERA.
BAI, ANDREA.
MARTA ELISA, AITA ARTATU ONDOREN AGINDUTAKO OSTREN BILA JOAN BEHAR DUZU.
BLA BLA BLA BLA
BLA BLA BLA
BLA
BLA BLA BLA
BLA BLA BLA
MAAA!
TXOP! TXOP!
UME BIHURRIA!
BUAA!
MARTA ELISA, EKARRI ZAPIA!
MARTA ELISA!!!


EGUBERRI ON, ALABATXOAK!
EGUBERRI ON, AMATXO!
MARTA ELISA!!!
PUM!
PUM!
ZERTAN ARI ZARA?!
NIK... SENTITZEN DUT, ANDREA, GABONAK DIRENEZ FAMILIAREKIN HITZ EGIN NAHI NUEN, ORDU HONETAN EGUNSENTIA DA NIRE HERRIAN, ETA...
ESKEGI! EZ DIZUT BERRIKETAN IBILTZEKO ORDAIN IZEN.
ERREBELDE ZINELA JAKIN IZAN BANU, LATINA IZATEAZ GAIN... GRRRR!
OSO ARRO NAGO LATINA IZATEAZ!
HAINBESTE LATINA EGONGO EZ BALITZ, NOLA BIZIKO ZINATEKE ZUEK HEMEN!
HURRENGO IGANDEAN...
ETA NAGUSIAK ESAN ZIDAN SALATU EGINGO NAUELA!
ETA BOTATZEN BANAUTE? ZER EGINGO DUT NIK LANIK EZ PAPERIK GABE?
BAINA HORI EZIN DUZU ONARTU! ZUK ESKUBIDEAK DITUZU!
LAGUNDUKO DIZUGU. EZ BELDURRIK IZAN, ZUREKIN GAUDE, BAINA UTZI ETXE HORI ARIN.

4 ATALA

HILABETE BATZUK GEROAGO.
INTERNET Locutorio
BESTE LAN BAT, BARRUKOA BAITA ERE, LORTU NUEN BESTE ETXE BATEN ELKARTEKO LAGUNEI ESKER.
ZE ONDO, AMA. ETA NOLA TRATATZEN ZAITUZTE?
ONDO ZAINTZEN NAUTE ETA BESTEAN BAINO GEHIAGO ORDAINTZEN DIDATE.
NEURETZAKO GELA DAUKAT, LEHEN ZAINTZEN NUEN ATSOAREKIN EGIN BEHAR NUEN LO ETA EZIN NUEN ATSEDEN HARTU.
ETA NIRE PAPERAK EGIN AHAL DITUZTELA DIOTE!
ETA ZUEK?
HEMEN ONDO. MASAYAKO EMAKUME NEKAZARIEN KOOPERATIBAN LORTU NUEN LANA.
... ETA DIEGUITO HANDIEN ESKOLAN HASI ZEN, BERAK ESATEN DUENEZ. BIDALTZEN DITUZUN SOSEI ESKER, AMA.
ETA JAINKOARI ESKER, INDIRA.
NIK PAPERAK EGIN DIEZAZUTEN NAHI DUT, MARTA ELISA.
ZURE SEME ASIERREK GALDETUKO ZUELA ESAN ZIDAN.
OSO JATORRA ZARA ETA PENA DAUKAT POLIZIAREN BELDUR ZARELAKO ETA ZURE FAMILIA IKUSI GABE.
ESKERRIK ASKO, BEGOÑA ANDREA....
ZENBAT DAROAZU IKUSI GABE?
URTE BI. BAINA ZORRA KITATZEN DUDANEAN NIRE HERRIRA JOATEKO AURREZTUKO DUT.


ZORTZI HILABETE GEROAGO.
TANATORIO BILBAO
ASKO SENTITZEN DUT ZURE AMARENA, ASIER JAUNA.
OSO TRISTE NAGO, MAITE NUEN BEGOÑA ANDREA, HAIN ZEN ONA..
ESKERRIK ASKO, MARTA ELISA. BESTE FAMILIA BAT TOPATUK DIZUT ZAINTZEKO.
ETA SENTITZEN DUT AMA HIL IZANA BIZILAGUNTASUNA LORTU BAINO LEHEN...
EZ ARDURATU.
SALA 1
A 2
ATZERA HASTERA... HAIN GUTXI FALTA ZENEAN PAPERAK LORTZEKO...
BADAROAT HIRU URTE HEMEN.
JAUNA, EZ UTZI TRISTEZIAK GAINDI NAZALA...
EMADAZU AURRERA EGITEKO INDARRA, JAINKOTXU.

5 ATALA

ZORIONAK, MARTA ELISA!!!
ZORIONAK MARTA ELISA !!!
ELAIAK
LAGUNAK, OSPAKIZUNAREN ONDOREN, GAURKO ELKARRIZKETARI EMANGO DIOGU HASIERA.
ELAIAK
OHORE HANDIA DA LUR HARTZEA, FISIOTERAPEUTA ETA "ZAIN DITZAGUN ZAINTZEN GAITUZTENAK" GEKO KIDEA AZALDUKO DIGU NOLA EGIN MINIK EZ HARTZEKO ZAINTZEN DITUGUN PERTSONA EDADETUAK ALTXATZEAN.
KAIXO! BAI, ETA AMAIERAN ARIKETA BATZUK ERAKUTSIKO DIZKIZUET GAUERAKO, GIHARRAK ERLAXATZEKO.

AGUR!
AGUR, NESKAK!
AGUR, DATORREN IGANDERA ARTE!
ZURIEK POBREZIA EZAGUTZEN DUTE BAINA EZIN DUTE ABERASTASUNA IMAJINATU.
BAZENEKIEN GARBITZEN DUDAN ETXEAN IGERILEKUA DAUKATELA LORATEGIAN ETA BESTE BAT ETXE BARRUAN?
URTE GUZTIAN EZ ZARA GARBITZETIK LIBRATZEN!
NIK ORAINTXE DENBORA DARAMAT ETXE BATEN GARBITZEN ETA FAMILIAREN AGUREA ZAINTZEN.
ESKUA LUZE DAUKAN GIZONA ETA BADIRA ALDI BATZUK IPURDIA ETA IZTERRA UKITZEN DIZKIDALA ALTXATZEN DUDANEAN.
AIENE, NESKA.
BAI, NIK ATZO ESAN EGIN NION, NIRE ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEN HASI NINTZEN ETA ALABAREKIN HITZ EGIN NUEN.
BAINA PAZIENTZIA IZATEKO ESKATU ZIDAN, AITAK OSO GALDUTA DAUKALA BURUA... IGOAL LASTER ERRESIDENTZIARA ERAMANGO DUTELA NIK BAKARRIK EZIN DUDALAKO EGUNERO ASTE OSOAN.
ETA ZE ERRESPETU ETA MAITASUN GUTXI DIETEN HEMEN EDADETUE!
BAI. EMATEN DU EDADETUAK SOBERAN DAUDELA ETA ZAINTZEA GURETZAKO LANA DA. BITARTEAN, NORK ZAINTZEN DU GURE FAMILIA?
BAI... ETA ZURE ALABEI NOLA DOAKIE?
ONDO, TANIA IKASKETAK AMAITZEKO ZORIAN ETA INDIRA, BADOA, DIEGUITOREKIN ETA EMAKUMEEN KOOPERATIBAREKIN... BAINA EZ DUT POZIK IKUSTEN SENARRAREKIN, EZ DIT ESATEN, BAINA SUSMOA DAUKAT...

NANDASMO, MASAYATIK GERTU, EL ROSAL EMAKUME NEKAZARIEN KOOPERATIBA.
KOOPERATIBAK ZOR MORDOA DAUKA.
HIL HONETAN SOAK FALTAKO ORDAINTZEKO JAKIN ERE EZ DAKIT NOLA ESANGO DIEDAN.
IGOAL ITXI EGIN BEHARKO GENUKE, INDIRA.
BAINA, NOLA ORDAINDUKO DITUGU HILEKO SOLDATAK?
ZUK AHAL IZAN DUZUN GUZTIA EGIN DUZU ETA EZ DIGUTE SOS GEHIAGO EMATEN.
BROOOOM
MASAYA-GRANADA
MASAYA
ZU MARTA ELISAREN ALABA ZARA?
BAI, ETA ZU MARIA TERESA ZARA. ZER MODUZ?
ONDO, JAINKOARI ESKERRAK.
BAINA ZU BARTZELONAN BIZI ZINEN, EZ ALA?
BAI, ETA ITZULI NINTZEN.
ZORRA KITAKU BEZAIN PRONTO, NIRE SENARRAK ETXETXOA ERAIKI ZUEN ETA AROZTEGIA JARRI ZUEN.
NIK ESPAINIRA JOATEKO ANIMATZEN DUT ASKO GOGOR LAN EGIN BEHAR DA ETA TXARTO PASATZEN DA BAINA, BEGIRA, ORAIN BADAUKAGU GURE NEGOZIOA.
OSO AUSART IZAN BEHAR DA ZURE HERRIA UZTEKO.

6 ATALA

ESANGO BANIZU BILBORA KOAN NAHI DUDALA GURE AMAREKIN LANERA, ZAINDUKO ZENUKE DIEGUITO?
EH...? JAKINA... BAINA ETA ZURE SENARRA?
DANIELEK TXARTO TRATATZEN NAU. BATZUETAN JO EGIN NAU ETA ARRATSALDEKO ETORTZEN DA MOZKORTUTA.
ETXETIK BOTAKO DUT ETA NEURE BIZITZATIK. KOKOTERAINO NAUKA!
EZ DUT UZTE ZANTAR HORREK SOSIK EMANGO DIDANIK, EZTA BERE SEMEARENGATIK ERE! MADARIKATUA...
ETA KOOPERATIBA EZ DABIL, BADIRA HILABETEAK IRABAZIRIK GABE.
BERAZ, MAILEGUA ESKATUKO DUT.
SNIF
AIENE, ZAINDU ONDO, TANIA, EZ DAKIT NOLA EUTSIKO DIODAN NIRE SEMETXOARENGANDIK URRUN.
ZIN DAGIZUT, AIZTATXO.

EGUN BATZUK GEROAGO, ABENDUKO IGANDE BAT BILBON...
LANGILEAK GARA EZ ZERBITZARIAK!
LANA BAI, BAINA DUINTASUNEZ!
ENPLEGATZAILE, UTZI ITZAZU IRTETEN!
EZ GARA ETXEKO BESTE BAT ESKUBIDEDUN LANGILEAK GARA
GABONETARAKO ESKUBIDEA!
ELAIAK, NI BANOA, SKYPA DAUKAT ALABAREKIN.
INDIRAK ETORTZEKO ASMOA DU, EA IDEIA HORI BURUTIK KENTZERIK DAUKADAN!
AIENE, ALABATXO, ZERGATIK EZ ZENIDAN ESAN JOTZEN ZINTUELA?
ETA ORDUAN ZER EGINGO DUZU?
AIENE... ETA BADAUKAZU TXARTELA EROSITA ETA MAILEGUAK ESKATUTA...
ZUREKIN JOAN EGIN BEHAR DUT HARA, HEMEN EZ DAGO EZER...
KOOPERATIBA ETA TALDEAK GOBERNATZEN ESKARMENTUA DAUKAT, ZIUR LAN ONA LORTUKO DUDALA.
ETA NEU ARDURATUKO NAIZ DIEGUITOZ, AMA. EZ DAGO ARAZORIK.
UNIBERTSITATEA UTZIKO DU ETA ITZULTZEN ZARENEAN BUELTATUKO NAIZ.
DENA PRIMERAN ATERAKO DA, AMA.

7 ATALA

LAU HILABETE GEROAGO.
UZTE NUEN NIRE TITULUEK ETA ESKARMENTUAK NIKARAGUAKOAREN ANTZEKO LANA TOPATZEKO LAGUNDUKO ZIDATELA...
... BAINA EZIN DIZKIDATE BALIOZKOTU.
NIRE AMAK BARRUKO LANA AURKITU ZIDAN NEGURIKO ETXE BATEN, HORRELA LOGELA ERRENTA AURREZTEN DUT.
BAINA ETXE HORRETAN GAILETAK ZENBAT ERE EGITEN DITUZTE EZKUTUAN JATEN EZ DITUDALA KONTROLATZEKO.
KAIXO, MERARY NAIZ, SALVADORREKOA. HILABETE BAINO EZ DARAMAT HEMEN ETA GETXOKO ETXE BATEAN NAGO NI ERE.
NIK GALDETU NAHI NIZUEKE, MESEDEZ, NOLA PRESTATZEN DIREN DILISTAK, LEHENGO EGUNEAN NIRE NAGUSIA ASKO HASERRETU ZEN EZ DAKIDALAKO HEMENGO DILISTAK TXORIZOAREKIN EGITEN...


HILABETE BATZUK GEROAGO.

FOTOS


URTEBETE GEROAGO.
ÑAM
... LEHENENGO EGUNEAN LANEAN ARI NAIZEN ETXE BERRIKO UMEAK ESAN ZIDAN LEHENGO ZAINDARIA GUSTOKOAGO ZUELA AZALA NIREA BAINO ARGIAGOA DAUKALAKO.
ÑAM
ÑAM
ÑAM
ÑAM
DEUSTUN ETXEBIZITZA ALOKATUKO DIDATEN IKUSTEN ARI NAIZ, ORAIN BIZILEKUTASUNA LORTU DUDANEZ ETA KONPAN EGITEN DUDANEZ LAN, EZ DUT UZTE ARAZORIK IZANGO DUDANIK.
NAHIZ ETA NIRE DOINUA ENTZUTEN DUTEN GUZTIETAN AITZAKIAK JARTZEN DITUZTEN EDO ZUZENEAN DIOTE EZ DIETELA MIGRANTEEI ALOKATZEN.
EZ DAKIT, AMA...
TRISTE DARRAIZU, INDIRA.
ETA ZER NAHI DUZU?! DIEGUITO HASERRE DAGO ABANDONUAN SENTITZEN DELAKO.
EDO NI AHAZTEN HASITA DAGO...
AMA GAIZTOA IZAN NINTZEN! MUNSTROA NAIZ!
LASAI, ALABA, IDEIA BAT DUT...
... BIZILEKUA TOPATZEN DUDANEAN, NIREKIN ETORRIKO ZARA, GETXOKO LAN HORI UTZIKO DUZU ETA KANPOKO LANA BILATUKO DUZU...
ERRATU EGIN NINTZEN ETORTZEAN ETA ORAIN EZIN NAIZ ITZUL!
MAITIA... «PRIMERAN» IRTENGO DA, ESAN ZENIDAN.
GERIATRIA LAGUNTZAILE IKASIKO DUT ETA HOBETO ORDAINDUTAKO LANA AURKITUKO DUT. ETA ZURE ZORRA KITATZEN DUGUNEAN DIEGUITO EKARRIKO DUGU GUREKIN.

8 ATALA


BI URTE GEROAGO.
ALABA, ZE OHITURA DAUKAZUN HONDARRAK HARRIRA BOTATZEKOA, NEUK GARBITU BEHAR DUT.
AIENE, NERABE BAINITZAN EGITEN DIDAZU HITZ, AMA.
NERABEA ZU BAINO ORDENATUAGO DA.
HARA, IA KITATUTA DUT NIRE ZORRA. LASTER TXARTELA EROSI AHAL IZANGO DUT NIKARAGUARA JOAN ETA DIEGUITO EKARTZEKO.
AIENE, IA LAU URTE PASA DIRA.. AURTEN ZORTZI BETEKO DU...
PLIN
EZIN DUT SINETSI! MADARIKATUA!
ZER DA?
DANIEL DA! OSO FALTAN GAITUELA DIOST ETA BERRIRO ELKARTU NAHI DUEL.
KASURIK EZ ZANTAR HORRI! BIDALKETAK KONTROLATU ETA SOSAK ESKURATZEA NAHI DU.
EZ, EZ... INOLA ERE EZ NAIZELA ITZULIKO IDAZTEN ARI NAIZ.
TAK TAK TAK TAK
PLIN PLIN PLIN PLIN
ETA ORAINTXE SEMEA LEGEZ KENDUKO DIDALA MEHATXU EGITEN DIT!
AMA, ESADAZU EZIN DUELA EGIN! SNIF! ZER EGINGO DUT?!
AHALIK ETA LASTERREN SOSAK BATU BEHAR DITUGU UMEAREN BILA JOATEKO, HIL HONETAN GARRAIO BONUA BESTRIK GERATZEN EZ BAZAIGU ERE. BAI?
SNIF...

ASTE BATZUK GEROAGO.
ARDUNALDIAK
ETXEKO ETA ZAINTZAKO LANGILEAK BORROKAN
BLA BLA BLA BLA BLA BLA
LÁSTIMA NADA DIGNIDAD TODO
DOMESTICAS MIGRANTES INVISIBLES
CUIDAR ES TRABAJO
ESKUBIDE GUZTIAK
... LEHENENGO TA BEHIN AIPAMENA JARDUNALDIETARA ETORRI EZIN IZAN DIREN LAGUNEI ASTERO ORDEBETE BAINO EZ DUTELAKO ATSEDENERAKO...
... ETA GURE LANA ALDARRIKATU BEHAR DA, ETXEKO LAGUNTZAILEAK GARA EZ ETXEKOTUAK. GU EZ GAITU INORK ETXEKOTZEN, LAGUNAK!
EZ ZERBITZARI, EZ ETXEKOTU!
PLAS
PLAS
PLAS
PLAS
PLAS
PLAS

ARGI DAGO GURE LAN ESKUBIDEAK BERRIKUSI EGIN BEHAR DIRELA, ETA ANDALUZIATIK DIOGU: ALDARRIKATU EGIN BEHAR DUGU ETXEKO ETA ZAINTZAKO LANGILEAK GIZARTE ZEGURANTZAREN ERREGIMEN OROKORREAN SARTU BEHAR DIRELA!

189 HITZARMENA BERRESTEAREN ALDE!

NIK NAHI DUDANA DA ENPLEGATZEN NAUENAK SINATU DEZALA ZAINDU EGINGO NAUELA ETA EZ TXARTO TRATATU, GURE HERRITK IRTETEN GARA BORTIZKERIARENGATIK ETA HONA IRISTEAN GURE ENPLEGATZAILEENGANDIK JASOTZEN DUGU ETA BAITA ATZERRITARTASUN LEGEARENGATIK.

ESKUBIDE GUZT
ETXEKO LANGIL

ALABA, PSIKOLOGA, TRAUMATOLOGA, FISIOTERAPETUA, SUKALDARI, GARBITZAILE LANA EGITEN DUGU...

ELAIAK GURE ELKARTEAK, LAS GOLONDRINAS, BIZKAIATIK ESAN NAHI DUGU: BARRUKO LANA DESAGER DADILA!!!

BAAAI!!!

GU GABE EZ DUELAKO MUNDUAK AURRERA EGITEN!

HORI DA!

BAI!!

¡BAKARRIK IKUSEZIN, ELKARREKIN MENDERAEZIN!!!

QUEREMOS CURRAR EN CONDICIONES

BASTA YA DE PRECARIEDAD

EMPLEADAS DEL HOGAR

ME DUELE TO EL CUERPO

DE NUNCA PARAR

NO TENGO UN DÍA LIBRE

NI PARA ENFERMAR

AMAIERA

OXFAM